

Iragarkia ongi erantsi da eta Nire iragarkiak orrian ikus dezakezu

ANTSOAIN

Deialdia, Antsoaingo Udalaren zerbitzuko mantentze lanen arduradun izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa murriztu bidez betetzeko. Izendapena

Iragarki hau gordeta dago

2009ko 131. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, urriaren 23an, mantentze lanen arduradun izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa murriztu bidez betetzeko deialdia. Proben epaimahaiak egin proposamenari jarraikiz, eta Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamendua onesten duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuaren 35. artikuluan ezarritakoa bete beharrez, Antsoaingo Udaleko alkate udalburuak, 2010eko otsailaren 23an emandako ebazpenaren bitartez, erabaki zuen Pedro Herrera Triguero izendatzea mantentze lanen arduradun, berak lortu baitu puntuaziorik handiena gainditu duten izangaien artean.

Antsoainen, 2010eko otsailaren 24an.-Alkatea, Antonio Gila Gila.

Iragarkiaren kodea: L1003533